

## Afrikaren arazo larrienak Europa du izena

Dena ez da Bushen eta Estatu Batuen errua. Europako herritar askok ahaztu dute Afrika luzaz bere kolonia izan dela, baina afrikarrak egunero ohartzten dira beren bizi ezina, hein handi batean, europarron jarduerari dagoela loturik. Menpekotasun harremanok eztabaidatu nahi dituzte.

**DOT KEET ERRETRETAN DAGO** irakasle lanetik, eta mugimendu altermundialista gazteari buru urdinduekin irudi ohoragarriagoa ematen dioten militante zaharretakoa da. Zuria da, holandar kutsuko abizenaren jabe, eta honela mintzatu zaio *Pueblos* aldizkariari: “Afrikan arrisku ikaragarria edukiko dute europarreko merkataritza librea onartzen badugu”.

*Pueblos* hiruhilabetekaria Madrilen argitaratzen da eta bere kontseilu editorialean, beste batzuen artean, Euskal Herritik Mugarik Gabe eta Nafarroako IPESek hartzen dute parte. Aldizkariaren 28. zenbakian, uda honetakoan, agertu dute Aloia Alvarez Feans-ek Dot Keeti egindako elkarrizketa.

Dot Keet Zimbawen sortu zen duela hirurogei urtez goiti. Politika ekonomikoan irakasle, Angola eta Mozambikeko gobernuentzako aholkulari lana egin zuen, independentzia lortu berria zutenean. Gerra zibilaren ondorioz, Europara egin behar izan zuen ihes 1980ko hamarkadan. Afrikara itzulitakoan, Hegoafrikako unibertsitate batean aritu da irakasle lanean, jubilatuta arte.

Orain Keet irakaslea nagusiki bi erakundetan ari da lanean, egoitza Amsterdamen duen Transnational Institute-n (TNI) eta Hegoafrikatik ari den Information and Develop-

ment Center-en. Udan *Pueblo*sek Madrilen elkarrizketatu zuen. Keet Europan ibilia da irailaren 27an ospatzen den nazioarteko egun baten kariaz; izan ere, egun horretan –Euskal Herrian Txiki, Otaegi eta FRAPeko hiru kideren afusilaketaren oroitzapenezko egun berean– mundu osoan deituta zegoen “EPAs global day of action”, EPA direlakoan kontrako ekintza eguna zen.

EPA hizkiek ingelesez Economic Partnership Agreements esan nahi dute: Ekonomi Elkartezko Hitzarmenak. Hilabete luzeak daramatza Europar Batasunak EPA horiek prestatzen Afrika, Karibe eta Itsas Bareko 79 herrialde txikirekin, datorren abenduan sinatzeko asmoz. “Hau da aurrean daukagun desafio nagusia –erantzun dio Dot Keetek *Pueblosi*– zeren eta EB Afrikako gobernu asko eta Europako herritarrak engainatzen ari da, sinetsaraziz orain Europak munduarentzako plan positiboa daukala”.

EPA horien bidez Europak herrialde txiroei eskaintzen die haren merkantuan sartzeko baimena, trukean eskatuz Europa beren ekonomietan sartu ahal izatea. Horren kontra buru-belarri ari dira Afrikako militante asko, berri itxurako eskaintzaren ondorioak lehendik ere oso ezagunak zaizkielakoan.

Afrikan beldur dira itun berriak nekazari txikiak eta lekuko industriak gehiago hondoratuko ote dituen. Gai-

nera, Europa eskatzen ari da inbertsioen eta zerbitzu guztien liberalizazioa, mugarik gabe. “Europak nahi du gu bere enpresen mende geratzea, hango ekonomiaren %70 zerbitzuek osatzen baitute. EPA hauek ondasunen esportazioari baino kapitalaren esportazioari eta Europako zerbitzu enpresen operazioei daude lotuta”.

Keet bezala pentsatzen dutenak seguru daude azken 30 urteotan Europako atek zabalik egon direla herriontzako, eta hala ere ez dute lehengaiak esportatzea baizik lortu, bertako ekonomiak sendotu gabe. “Afrikan azken 20-30 urteotan jendea esaten ari da Europagandiko menpekotasun gutxiago behar dugula, gure artean komertziatu behar dugula gehiago, gure ekonomiak dibertsifikatu, kanpoko kreditu, inbertsio eta laguntzekiko menpekotasuna gutxitu”.

### Udazken honetan negoziaketak

Europarekiko salerosketetan defizita dauka Afrikak. Galera hori dirulaguntzen, kredituen eta afrikar europaratuek bidalitako diruekin berdintzen du. Afrikaren kanpo zorra berriz 1980etan ziren 60.000 milioi dolarretatik gaur zor dituen 250.000 milioietaraino igo da.

Europar Batasunetik afrikarrei esaten zaie EPA berriekin egoera orekatuko dutela, baina Dot Keetek uste du, aditu kritiko askok bezala, europa-





Erretratu txikian Zinbawen jaino eta Hegoafrikan bizi den Dot Keet irakaslea azaltzen da. Keet anderearen ustez Afrikak uko egin behar dio Europar Batasunak abenduan sinatzeko eskainiko dion merkatu irekitzeari, urteotan afrikarrek europarrekiko nozitu duten menpekotasuna EPA berri horiekin kalte are handiagoa egingo dietelakoan. Argazki handiek Kamerungo Duala hiriko azokan bizi den giroa biltzen dute. Ezkerreko eszenan, hiru neskatok nekazaritzako produktu ale batzuk dauzkate salgai, bazarraren eta telefono mintzalekuaren aurrean jarrita. Eskuineko gizonak oihalak saltzen ditu, oinetako dendaren ondoan.

rrek liberalizazioaren fardelean beste pribatizazio multzo handia dakarkietela, zerbitzu publikoena batez ere. Afrikak botika hori lehendik ere hartu du. 1980ko hamarkadan, adibidez, afrikar askok ikusi zuten nola hasi behar izan zuten pagatzen ordura arte doakoak ziren zerbitzu asko, eta aldi berean beren etxalde eta industria txikiak batera babesik gabe geratu eta hondoratu ziren.

Gaur Afrikan kopuru handitan sartzen dira Asiako arroza, Amerikako artoa, Europako garia, eta abar. “Aziendak, txerriak edo oilaskoak hazten dituzten baserritarrak –dio Dot Keetek– ikusten dute Europatik merkeago iristen direla arrautzak, esnea eta haragia, paketeen oso ondo bilduta, eta jendeak nahiago dituela. Guk Hegoa-

frikan gazta, esnea, gurina eta jogurta ekoizti ditzakegu, baina jogur eta gazta frantsesek, nata italiarrak eta abar gure produkzioa suntsitzen dituzte. (...) Europak esaten digu lore exotikoak esportatu behar ditugula. (...) Lore, diamante eta urre gehiago ari gara ekoizten... janaria inportatzeko. Hau al da kontinente nekazaria?”

Txinaz galdetu dio kazetariak irakasle zaharrari, eta irakurlea ohartzten da Afrikako militanteek sentimendu berezia daukatela txinatarrekiko. Txina gogor sartu da Afrikan, berekin eramanez azpiegiturak, garraioak, elektrizitatea. Oso kompetitiboak dira eta beren teknologia daramate. Baina merkataritzako itun handietan Txinarekin negoziatu eta aurrez aurre lan egiteko modua ikusten dute afrikarrek.

Beste aldetik, ordea, Txinan gizarte zibila oso ahula da, bertan dauzkate sekulako arazo sozial, ingurumenezko, giza eskubidezko, eta abar... eta txinatarrak ez dira aski organizatu horiei aurre egiteko. Alde horretatik, Afrikako militanteek lotura handiagok dauzkate Europakoekin.

Europarekiko ere sentimendu bikoitza daukate militanteek. Europa ikusten dute arazo nagusi bezala: “Estatu Batuak mundu guztiarentzako dira arazo, baina zehazki Afrikarentzat arazo nagusia Europa da”. Sentitzen dute Europak lehertu dituela gizarte eta ekonomia afrikarrak, hasi esklabuen salerosketatik eta ehunka urtez luzatu den sakeoraino. Alde horretatik, Afrikak ez dio zorrik Europari, zorretan dagoena Europa da.

Baina itxaropen handia daukate era berean Europako jende aurrerazalearekiko. “Guk derrigor behar dugu Europako iritzi publikoak presio egitea beren gobernuari eta EBri. Europako gizarte zibilak baditu baliabideak eta informazioa eta zerbait egin dezake Afrikan europarrak egiten ari direnaren kontra”.

Aipatu EPA horiek abenduan dira sinatzekoak. Gure artean harrabots handiegirik entzun ez den arren, hitzarmen horien kontrako kanpainak berotzen ari dira azken hilabeteotan. Portugalena denez hilabeteotan EBaren lehendakaritza, agintariak negoziaketak Lisboan, Benineko Cotonoun eta Bruselan burutuko dituzte. Iritsiko zaizkie Afrikako eta Europako altermundialisten garrasiak. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik onenak,  
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena  
betaurreko graduatu,  
ukipen-lente,  
audiofono eta  
eguzkitako  
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hemani, 4 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskaltel.net  
TEL.: 943 420 624

K A L I T A T E A